Programa 6.3. Herri merkataritza sustatu aberastasuna sortuko duen iturri bezala eta gune historikoaren erakargarri turistiko eta eskaparate bezala

Ekintza	Deskripzioa	Lehetasuna
E.6.3.1 Herriko merkataritzarekin elkarlanean Merkataritza Suspertzeko Plan berezia aztertu eta berari dagozkion ekintzak identifikatu eta lehenetsi.	Herriko merkataritza bultzatu aberastasun iturri bezala eta turismoa erakartzeko. Merkataritza txikia Herri-gune historikoa bizirik mantentzeko nahitaezkoa da. Bertako eta eskualdeko merkataritza elkarrekin hiri ingurunearen jardura esparruak eta ekintza proposamenak zehaztu, baita herri mailan garatu daitezkeen merkataritzarako egiturak ere.	Altua
E.6.3.2 Herriko dendetan produktu adierazgarri eta herriko "marka"ri dagozkionean belaunaldien arteko ordezkapena erraztu.	Euskal-Herriko ohiko produktuen otarrean Urduñako produktuak sartzeko ekoizleei zuzendutako sustapen neurriak garatu. Herriko merkataritzan bertako baliabideak xertatu.	Altua

Programa 6.4. Natura eta kultura ondarean oinarritutako herriko garapen turistikoa bultzatu

Ekintza	Deskripzioa	Lehetasuna
E.6.4.1 2001 urteko Aiarako Turismoa Dinamizatzeko eskualdeko Planaren eguneraketan aktiboki lagundu.	Aiarako Turismoa Dinamizatzeko Planean aktiboki parte-hartu eskualdea eta Urduñak duten ahalmen turistikoa indartzeko	Ertaina

E.6.4.2	Nerbioi eta Ibaizabalgo Parke Linealaren gauzapena bultzatzeko lan egin.	Udalaz gaindiko eta udal erakundeekin proiektu honen zehaztapena eta ezarpena bultzatu eta dinamizatu. Done Jakue bidea egokitu eta ezagutarazi eskualde mailan.	Altua
E.6.4.3	Bilboko eraztun berdearekin konektatuko duen ibilbide berde bat sortu, Nerbioiko Parke Linealaren garapena oinarri bezala hartuta.	Basquetourreko "Destino de Detalle"-ko ondorioak eta proposamenak kontutan izan, baita natur turismoa egiteko ikerketako ondorioak ere (azpiegitura turistikoak eta zerbitzuei lotutako hobekuntza proposamenak): seinalizazioa, alojamentuen dibertsifikazioa, e.a. Aurrekoarkin lotuta, Aiaraldeako eskualdearekin lan egin ibilbideen sarea hobetzeko eta honela etorkizunean Euskadiko ibilbideen produktu turistikora atxikitzeko. Aiaraturrekin elkarlanean zikloturismo produktu turistikoan lan egiten jarraitu. Esperientzietan oinarritutako turismoa bultzatuko duten proposamen berritzaileetan aurrera lan egin.	Altua
E.6.4.4	Dauden aukerak aztertu larrerako landa lurren erabilpena kirol eta aisialdirako ekintzen garapenarekin bateragarri egiteko (parapentea...).	Abeltzaintzara bideratutako erabilerak eta kirola-aisialdirako erabilerak konpatibilizatzeko aukerak aztertu. Abeltzainekin eta ekintza berrien sustatzaileekin hitzarmenak.	Ertaina
E.6.4.5	Camping baten ezarpena bultzatu.	La Paulen camping bat eraikitzeko bideragarritasun teknikoa aztertu: jardueraren bideragarritasun ekonomikoa aztertu, kudeatzeko formula zehaztu eta sustatzaileak bilatu.	Altua

Programa 6.5. Lehiakortasuna bultzatu

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna	
E.6.5.1	Enplegu eta prestakuntza politiken sustapenean aurrera egin, baita enpresen sorreran eta merkataritza eta turismoaren sustapenean ere.	Eskualdeko Bulegoaren Ekintza Planak ekonomia ehunari laguntza eskaintzea aurreikusten du jarduera ekonomikoetan iraunkortasuna abian jarri eta produktuak merkaturatzeko. Enplegu berdea ere sustatzea aurreikusten du, beste administrazioekin batera.	Altua
E.6.5.2	Energia berriztagarriak eta eraikuntza ekologikoak ezartzeko prestakuntza bultzatu.	Energia berriztagarriak eta eraikuntza ekologikoaren alorrean enplegu aukerak aztertu, horrelako proiektuak abian jartzen eta finkatzen lagundu.	Ertaina
E.6.5.3	Ekintzaile berrientzako lokalak eskaini.	"Ideia" fasean dauden sustatzaileak identifikatu; negozio ideiak garatzeko lokalak eskaini, hauek abian jartzen lagundu eta baita proiektuak finkatzen lagundu ere.	Ertaina
E.6.5.4	Herriko sustapen ekonomikoaren alde lan egiten duten erakundeei diru laguntzak emateko arautegi bat sortu.	Udalerrriaren garapen ekonomikorako lagunduko duten ekintzak garatzen dituzten elkarte eta entitateei diru-laguntzak eskaintzeko oinarriak ezarri.	
E.6.5.5	Herri eta eskualde mailan sustapen ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko kolaborazio eta kooperazio sareak bultzatu.	Udalerrian enplegua eta jarduera sortzeko proiektuak identifikatu (sukaldea, campinga, e.a.). Proiektu hauen gauzapenean lagunduko duten eragile publikoak eta pribatuak identifikatu. Sustapen ekonomikoko sailetik eskaini daitezkeen giza	Altua

baliabideak eta baliabide teknikoak eskaini, proiektuak garatu eta laguntzeko. Lankidetzak mekanismoak ezarri: foroak, lan taldeak, elkarteak edo bestelako formulak.

LE.7. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA, GIZARTERATZEA ETA OSASUNA BULTZATZEA

Programa 7.1. Pertsona oroien ongizate eta gizarteratzea

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.7.1.1 Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileek hautemandako harrera eta irisgarritasun arazoei irtenbide bat bilatzen aurrera egin.	Ongizate saila lekuz aldatu	Ertaina
E.7.1.2 Zaharren egoitzan hautemandako azpiegitura arazoei irtenbideak aurkitzen aurrera egin.	Irisgarritasun planeko ekintzak gauzatu	Ertaina
E.7.1.3 Larrialdi egoeren arrazoiak identifikatu eta hauek saihesteko Diagnostiko bat egin.	Larrialdi egoeren arrazoi posibleak identifikatu eta saihesteko diagnostiko bat egin.	Ertaina

Programa 7.2. Biztanleria ondo bizitzeko ingurua eta bizi ohitura osasungarriak bultzatu

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.7.2.1 Haur kopurua handitzeagatik gaur egun dagoen pediatria zerbitzu eskariari irtenbideak aurkitzen aurrera egin.	Urduñako osasun zentroak atenditzen dituen 0-14 urte bitarteko ume biztanleriaren inguruko estatistika egin. Elkarten laguntzarekin eskaria egin.	Ertaina
E.7.2.2 Ohitura osasungarriak bultzatzeko biztanleriari zuzendutako ekintzak garatu: elikadura osasuntsuarekin erlazionaturiko hitzaldiak, erretzen utzi, e.a.	Ohitura osasungarriak bultzatzeko biztanleriari zuzendutako ekintzak garatu: elikadura osasuntsuarekin erlazionaturiko hitzaldiak, erretzen utzi, e.a.	Ertaina

Programa 7.3. Genero berdintasunaren aldekoagoa den gizartea sustatu

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.7.3.1 Genero berdintasuneko bigarren Plana egin.	Bigarren genero berdintasuneko Plana egin.	Ertaina

E.7.3.2	Urduñan emakumeenganako tratu txarrak eta sexu indarkeria kasuetarako esku-hartze protokolo bat garatu.	Protokoloaren garapenean inplikaturik dauden eragileekin sei hilero bilerak egin.	Ertaina
E.7.3.3	Prestakuntza ekintzetan parte hartu ahal izateko baldintzak malgutu, parte-hartzaileen lana eta familia bizitza kontziliatuz (haurtzaindegi zerbitzua).	Prestakuntza ekintzetan parte hartu ahal izateko baldintzak malgutu, parte-hartzaileen lana eta familia bizitza kontziliatuz (haurtzaindegi zerbitzua).	Ertaina

Programa 7.4. Elkarbizitza eta udalerrriaren jarduera solidarioa sustatu

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.7.4.1	Herrian etorkinen sentsibilizazioa, parte-hartzea eta integrazioa bultzatzeko programak eta zerbitzuak garatu.	Ertaina
E.7.5.1	Udal aurrekontuaren zati bat nazioarteko jarduera solidarioa bideratu.	Ertaina
E.7.5.2	Boluntariotza eta garapen komunitarioa bultzatu edo denbora banku baten sorrera sustatu.	Ertaina
E.7.5.3	Giza alorreko erakundeei diru-laguntzak emateko arautegi bat egin	Altua

Programa 7.5. Hezkuntza sistemarako sarbidea hobetu

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.7.5.1	Lan eskaria aztertu eta prestakuntza eskaintza eskari horretara egokitu.	Ertaina
E.7.5.2	Herritarren prestakuntza beharrak, kualifikazio maila eta ezagupenak identifikatu.	Altua

L8. EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILERA BULTZATU ETA ESKAINTZA SOZIOKULTURA ANITZA ETA PARTE-HARTZAILEA GARATU

Programa 8.1. Euskara erabileraren sustapen eta normalizazioa

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.8.1.1 Klean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak areagotu.	Urduñako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan jasota dago sentsibilizazioa nola landu. Aurten datozen lau urteotarako Plana osatu behar denez, sentsibilizazioa indartzeko ekintzak aztertuko dira lehendabizi, eta ondoren, euren eraginkortasuna handitzeko egoki irizten diren aldaketak edota ekarpenak txertatuko dira.	Altua
E.8.1.2 Euskara, kultura eta gazteria sailen eginkizunak laguntzeko giza-baliabideak jarri.	Inoiz baino beharrezkoagoa bada ere -gazteria teknikaririk ez dago eta lan tekniko handia dago...-, ez da proposamen zehatz ofizialik egin. Ildo horretan, ezinbestekoa da bilera bat egitea eta honakoak zehaztea: ze nolako lan administratiboak desbideratu ditzakegun, nori eta noizero (asteko egun batean...). Horrelakorik egin ezean, ez da gai honetan ezer aurreratuko, eta ondorioa izango da, arloko lan tekniko egiteke geratuko dela, edo bere kalitate maila jaitsiko dela ezinbestean.	Altua
E.8.1.3 Giza eragileak euskararen aldeko konpromisoan gehiago inplikatu eta Udalaren jarraipena handitu.	Euskara Batzordea horretan ari da. Gaur egun gizarte eragileen inplikazio altua den arren, areagotzen jarraitzea da Udalaren zein Euskara Batzordearen beraren asmoa. Horretarako lehen urratsak eman dira jada, izan ere Euskara Batzordean parte hartzen duten gizarte eragileek gero eta zeresan handiagoa dute euskara bultzatzeari begira lehenesten diren helburuak zehazteko orduan, zein antolatzen diren ekintzen nondik norakoak erabakitzeko orduan. Halaber, Udaletik, euskararen sustapena eta normalkuntzarekin zerikusirik daukan guztiaz informazio osoa eskaintzen zaie.	Altua
E.8.1.4 Euskara Biziberritzeko Plana berrikusi (orain ESP).	Euskara teknikaria horretan hasiko da laster, alde zuzenetik egin behar den diagnostikoarekin amaitu eta gero. Izan ere 2008-2011 epealdirako Plan Estrategikoaren luzapena egin zen 2012an, eta aurten, datozen lau urteotarako 2013-2016 Plan Estrategikoa onartu beharko litzateke.	Altua
E.8.1.5 Udal administrazioan euskararen erabilera normalizatu Euskara Biziberritzeko Planeko neurriak areagotuz eta identifikatutako oztopoak gainditzen lagundu dezaketen neurri berriak bilatu.	2013a amaitu baino lehen onartu behar da ezinbestean, izan ere 2008-2012 epealdirako Erabilera Plan muga eguneratu berri da, eta orain, 2012-2017 eperakoa osatu behar dugu udalerrri guztiok. Horretarako baina, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak markatu beharreko ildoan zain gaude.	Altua
E.8.1.6 Familia mailako mintza-laguna bultzatu non familiako partaide guztiek euskaraz dakiten.		Altua

Programa 8.2. Kultura, aisialdia eta kirol eskaintza eraginkorra eta parte-hartzailea

Ekintza	Deskripzioa	Lehentasuna
E.8.2.1 Nerbioi-Ibaizabalgo web gune linguistiko, etnografiko eta kulturaletik eratorritako ondorioak zabaldu.	Udlaren web orria bitartez, udal aldizkaria eta hitzaldiak	Ertaina
E.8.2.2 Herri mailan antolatzen diren kultur jarduera guztiei erantzuna eman ahal izateko, Kultur Etxean eta Liburutegian hautemandako espazio falta arazoei irtenbide bat bilatzen aurrera egin.	Alhondigako eraikina izango da ziurrenik Kultur Etxeak duen espazio faltari erantzuna eman diezaiokeen eraikina.	Altua
E.8.2.3 Herri mailako kulturako Plan estrategiko bat gauzatu.	Kultur eta kirol politika antolatu bat egiteko asmoz, Planak iraungo duen denboraldirako Kultura eta Kirol sailak lortu nahi dituen helmugak, helburuak eta proposamen orokorrak ezagutzea.	Altua
E.8.2.4 Turismoa eta kulturaren arteko koordinazio maila areagotu (zeharkakotasuna).	Bi sailen artean (turismoa eta kultura) hiru hiletan behin bilerak antolatu biek garatu behar dituzten ekintzen inguruan elkar komunikatzeko eta era koordinatuan bestelako ekintzak garatu ahal izateko.	Altua
E.8.2.5 Festa Batzordeak inplikazio maila handiagoa eta iraunkorragoa eta nortasun propioa izan dezan bultzatu.	Festa Batzordea arduratuko da kultur saileko (edo Udaleko) festak eta ekintzak antolatzen eta koordinatzen. Zentzu horretan berau izango da festen sustapena eta ezagupenerako organo arduraduna. Bere zereginak egiteko autonomia osoa izango zukeen.	Altua
E.8.2.6 Gazteplanaren garapenean aurrera egin (Gaztedi bis).	Aurreko Gazte Planean egindako ekintzak identifikatu eta identifikatzen diren berriak garatzen hasi.	Altua
E.8.2.7 Udala eta giza talde ezberdinen arteko programaketa kultural koordinatua egiteko esfortzuak areagotu, herriko sektore ezberdinetara iristeko.	Sailak deituta foroak-batzordeak antolatzen dira. Baita, urtero egiten diren kultur elkarte eta kirol elkarteei zuzendutako diru-laguntza bitartez ere.	Altua
E.8.2.8 Kirol elkarteek erabilitako gune publikoak arautuko dituen arau bat egin, erabilerak eta betebeharrak ebazteko.	Diru-laguntzaen arautegi orokor bat dago eta urtero deialdiak egiten dira.	Altua

JARRAIPEN PLANA


1. Jarraipen Planaren Xedea

Iraunkortasunerako **Tokiko Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena** egitea du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz, baita adierazleen kalkulua ere.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, herriaren testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

2. Jarraipen Planeko Operazioak

Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aldizkako **hainbat aplikazio prozesuren integrazioa** sustatzen da, horien artean Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu egokia sortuz.



TA21en Ekintza Planaren urteko kudeaketaren zikloa

Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 60.zk. 2006ko Urria. Ihobe.

Horrela, Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, urtero iraunkortasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta Tokiko Agenda 21ean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa) baloratu eta komunikatzeko aukera ematen du, baita hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa), ahal den neurrian udal aurrekontuei lotuta.

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN KALKULUA (TIA)	Euskadiko tokiko iraunkortasunaren adierazleen sistemaren urteroko kalkulua Tokiko Agenda 21en ebaluazio eta jarraipen programaren esparruan, MUGI 21 aplikazio informatikoa erabiliz.	TIA-en kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Udalerrriaren egoera eta joerak ezagutu eta ebaluatzea. - Urtean zehar burutu diren ekintzen emaitzak ebaluatzea. - Biztanleriari udalerriko garapen jasagarriaren egoera, joera eta garapen mailaren berri ematea modu argi eta errazean.
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA	Berotegi-efektuko gasen Inbentarioaren kalkulua.	BEG-en isurketen Inbentarioaren kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea. - Udalerriri zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea.
TOKIKO EKINTZA PLANAREN (TEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Metodologia estandarizatuaren eta MUGI 21en aplikazio informatikoaren bitartez ekintza Planak gauzatuak mailaren urteroko balorazioa eta analisisa da. - Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazioak horiek euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da. - Zenbait aldagairen arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboa egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraginkortasun handiagoa lortzearen, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du. - TEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. - Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzea ahalbidetzen du. - Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du. - Inplikaturik dauden agente ezberdinei -politikoak, teknikoak, herritarrak- Tokiko Agenda 21en garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.
EMAITZAK JAKINARAZTEA	Behin iraunkortasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak Tokiko Agenda 21-i lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da: <ul style="list-style-type: none"> - planean inplikaturikotako eragile teknikoei - gobernu taldeko kideei zein herritarrei - herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei 	Barne komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - Barnean dauden udaletako teknikariek Ekintza Plana barneratzen dutela sustatzea, xedea izanik hauek Planaren ekintzak beren jardueran txertatzea eta barne komunikazio eta koordinazioa indartzea. Kanpo komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - Udalak iraunkortasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik. - Herritarren parte-hartze organoak finkatzen laguntzea Planaren exekuzioaren jarraipenaren eta ondorengo programazioaren bitartez.

¹ Ekintza guztiek urteroko periodikotasuna dute, Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu, zeinak 4 eta 8 urte bitarteko maiztasuna duen, udalerrriaren arabera.

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
TOKIKO AGENDA 21AREN KALITATEAREN NEURKETA (tak21)	<ul style="list-style-type: none"> - tak 21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko eta ezagutzeko sistema da. 5 ezaugarriren balorazioen bitartez definitzen da: ezaugarri estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak, operatiboak eta jasangarritasunekoak. - Udalsarea 21ek sustatutako Auditoretza sistema bat da, eta Sarean dauden udalerrien Tokiko Agenda 21eko prozesuen kudeaketa modeloaren parte da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren parte-hartzea sustatzea jardueren urteko programazioaren prozesuan herritarrak integratuz. <p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bidezko diagnostiko baten bidez Tokiko Agenda 21en plangintza hobetzea. - Udalerrian hoberen dauden alderdiak eta hobetu daitezkeenak antzematea.
EKINTZEN PROGRAMAKETA	<p>Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa udal aurrekontuari eta barnean dauden udal-zerbitzuen kudeaketari lotzea. - Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea. - Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar udalaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak.. - Tokiko Agenda 2 prozesua udal teknikarien multzo osoaren aurrean ikusgarriagoa egingo duten eta haiengandik hurbilago kokatuko duten hurbileko denbora-mugarriak eskura izatea.
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA	<p>Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planaren helburu zein ekintzak iraunkortasunari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea. - Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea. - Udalerriaren ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea.

3. MUGI 21 Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan

MUGI 21 Udalsarea 21eko udal-kideentzat neurritan diseinatutako eta garatutako **aplikazio informatikoa** da. Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta jarraipen prozesu garrantzitsuenen kudeaketa integratua errazten du, alegia, Planaren ebaluazioa, adierazleen kalkulua, ekintzen programazioa eta Planaren azterketa (planifikazioa).

Badaude, gainera, bestelako tresna batzuk, hala nola, Tokiko Jasangarritasun Adierazleen kalkulurako Metodologia, tak21 aplikazio informatikoa edo Tokiko Ekintza Planen Ebaluazio eta Jarraipen Plana besteak beste, kudeaketa eredu honen lanen garapenean laguntzen dutenak.

4. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?

Ekintza Planaren kudeaketa prozesuan beharrezkoa da ondorengo konpromisoa:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA ESKUALDE MAILAN	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. • Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena. • MUGI 21en inguruko dokumentu eta informazio kudeaketa. • Programazio txostena egitea. • Udalsarea 21ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea. • Emaizten txostenaren tratamendua eta lantze prozesua.
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA UDAL MAILAN	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako Udaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko koordinatzaileari laguntza ematea. • UT21 Nerbioi-Ibaizabali datuak eta informazioa emateko barne koordinazioa.
INPLIKATURAKO ERAGILEAK	Udaletxe, udal enpresa, UT21 Nerbioi-Ibaizabal zein udal eskuduntzak beren gain dauzkaten eskualdeko beste entitateetako o teknikari edo hautetsiak, Ekintza Planaren buruketan inplikaturikoak.	<ul style="list-style-type: none"> • Buruturiko Ekintza Planari loturiko jardura guztien identifikazioa. • Integratutako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa. • Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.
EBALUATZAILEA	Prozesua ebaluatzeko propio esleitutako pertsonal teknikoa, lan hori burutzeko gaitasun bereziak izan behar dituena. Rol hau UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko pertsonal tekniko batek bete dezake, baina hobe da Udaletik kanpoko eragile batek egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren koordinatzaileari metodologi laguntza ematea. • Prozesuaren hasierako aurkezpenari eta eragileei irizpideak emango dizkien prozesu bukaerari laguntza ematea. • Metodologi gidan ezarritako irizpideen arabeko ekintzen exekuzio mailaren ebaluazioa. • Prozesuaren kalitatearen kontrola eta metodologi irizpideen gutxiengoa betetzearen balidazioa. Beharrezkoa izanez

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
		gero, koordinatzaileari laguntza ematea.

5. Jarraipenerako Ereduaren proposamena

Jarraian Udaleko nahiz eskualdeko kudeaketa organoen eta partaidetza organoen bitartez prozesuaren jarraipena egin ahal izateko eredu bat aurkezten da.

Barne Partaidetza:

Prozesuaren jarraipena hainbat mailatan burutuko da:

Maila	Organoa	Izaera	Funtzioak
Udalekoa	Lantalde estrategikoa	Mistoa (politikoa eta teknikoa)	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea herri mailan
Eskualdekoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordea	Mistoa (UT21 Nerbioi Ibaizabaleko kide diren udaletako udal arduradun eta arduradun politiko eta tekniko integratua)	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea eskualde mailan

Bi organoak Tokiko Agenda 21 en garapen eta jarraipen prozesuak eskatzen duen maiztasunarekin deituko dira bilerara. Ezarritako helburuak betetzearren, komenigarria litzateke organo bakoitzarekin gutxienez urtean bitan elkartzea.

Kanpo Partaidetza:

Herritarren parte-hartze eta jarraipena hainbat metodoren bitartez burutu daiteke, parte-hartzea bultzatzen duten foro edo tailerrak antolatuz, esaterako. Parte-hartze eta jarraipen hori egin diren Lantalde eta batzordeen eta urteko programazioaren arabera izango da. Gutxienez urtean behin egingo da.

Kanpo partaidetza izan daiteke:

- Tokiko Agenda 21 en prozesuari berari lotua: Tokiko Agenda 21 en jarraipen, ebaluaketa eta programazioa ahalbidetzen duten herritarren parte-hartzeko mekanismoak.
- Sektoriala edo gaikakoa: herritarren parte-hartzeko mekanismoak, adibidez, mugikortasun foroak, airearen kalitatea, biodibertsitatea, Udala-enpresa, parte-hartzeko estrategiak diseinatzeko prozesuetan zentratutako bilerak, etab.